

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez adinekoen arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.001) izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe geratuko den

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakariaren ebazpen bidez (ALHAOn argitaratu zen: 2025eko ekainaren 18an, 68.zenbakia.) deialdia egin zen izendapen askearen bidez betetzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen adinekoen arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (lanpostuaren kodea 81.001.)

Ebazpen horretan, eskabideak jasotzeko epe bat ezarri zen, hamabost egun baliodunekoa, iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Aurreko paragrafoan adierazitakoa, 2025eko ekainaren 19an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikatu zen (115. zenbakian).

Deialdi horren bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko gerentzia zuzendaritzaren txostena jaso da, eta egiaztatu da bi hautagaik uko egin diotela eta hirugarren izangai batek ez duela egokitasunik. Ondorioz, bidezkoa da deialdi hau hutsik uztea.

Bat etorri Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoarekin, zeinak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua onartzen duen,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko adinekoen arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.001) izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uztea.

Bigarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari; hori guztia bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 21a

GOFeren Administrazio Kontseiluko lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE